

# Liburu berriak irakurtzen

**«Zorion bidea».**—Egille: Mikel M. Zubiaga. Irarri: Izarra Irarkolan Donostia, 1976. Bigarren argitaraldia, 1974'an egin zan lenengoa. XVI zati dauzka liburuxka eder onek. Errez-errez irakurtzen dira sail guztiak. Gaia mamintsua da, euskera jator coxcan erabillia.

Nor dugu egillea? Gerra aurreko idazle bat, J. San Martin'ek eta Auñamendi'k aipatzen ez diguten̄a. Euskalerrian izlari bezela asko ibillitako Aita Josulaguna.

Onela dio liburuari egin dion sarrera. Amaika aldiz entzun izan degu. ...meran: «Agindua, zor. Ala esan zi Norbaiti bein agindurik izan bear nion nunbait. Eta arrezkero, eske ta eske neukan, Mando-euli bizia aspergarri ta nekarazle bat zirudian. Ezin iñundik-iñora alde eragiñik, beti inguruan zebilkidan da. Ukatu ordukoxe, bertan bait nuen izan ere. Zirt-edo-zart egin bearrean ninizan bada. Bestela, erabaki ezik erre, ito, lertu, gañez eragin eta nere onetik ateraziko ninduan».

Eta egitan zegoen orrela zirikatu zuena. Pakerik gabeko mundu naspildu onetan zorion-billa gabiltzan guztiontzat, aukerakoa dugu 122 orrialdeko idazti txairo au.

**«Landare Jakintza. Botanika».** Egille: G. Larrañaga, Aita Jesuitea. Irarri: Kardaberaz Bazkunak, Gazteiz'ko ESET irarkolan.

Azkoitiar onek izadi zientzi arloan irakatsi izan digu urte askotan, Karakas'en, Indautxu'n eta Tudela'n. Ikasle zanetik euskaltzale, ez da bat ere arrigarri esku artekoak euskeraz jarri nai izatea. Eta botanika'ri eldu dio lendabizi, eta beronek irabazi zuen lenengo «Andima Saria», Karakas'ko ELE'k (Euskeraren Lagunen Elkartasunak) sortua.

Liburua, gai ortan euskeraz lenengoa. A. Ibiñagabeitia'k «Euzko-Gogoa»-n eman ziguna kendu ezkero, jakintsuki osotua daukazu. 183 orrialde ditu, beste izkuntzetan agiri diran beste asko baiño naikoa obeki egiña da. Merezi zuen, beraz irabazitako saria.

**«Euskal Literatura. IV».** Ba-dioa ona sail au ere. Ale onekin gure Literaturaren aroñik ederrenari taiñak artu dizkio egilleak. Ementxe datoz guk izan ditugun euskal idazlerik bikaiñenak: Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Eguzkitza, Ibargutxi, Olabide, Loramendi... 440 orrialde ditu, aurreko beste iru aleen antzera taiutuak.

**«Marx y los Nacionalismos Separatistas».** Egillea: G. Garate. Irarri: Gazteiz'ko ESET'ek; eta argitaraltzaillea: Bilbao'ko «San Miguel» liburu-banatzaillea. 310 orrialde.

Donosti'ko Sociedad Guipuzcoana de Ediciones'k biaiduak: 1) Juan Thalamas'en **«La Mentalidad Popular Vasca según Resurrección María de Azkue»**; 2) Alvaro Navajas'en **«La Ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa»**; 3) Antonio Cillan Apalategui'ren **«Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-36)»**; 4) Jesus Elosegi'ren **«Las minas de cobre de Aralar (1732-1804)»**.

Eta Belloke'tik: **«Nor da hora»**, Rafael Muskardiz Bellokeko atezain zarraren esanak eta X. Iratzeder'en zarrak, 218 orrialdeko liburu mardula; 2) **«Ilhaineri nausi»**, X. Iratzeder'ek orduteko laugarren (1958-1971) poesi liburua; 93 orrialde ta 48 olerki; 3) X. Iratzeder'en **«Eskual Herria eta Jainkoaren Gizaldea»**, Jainkoaren gizaldea, lurreko gizaldeak, gizona eta gure egitekoa: 28 orrialde; 4) Otoitzlari 80/81»; igaz, Belloke'n fraideak kokatu ziranetik eun urte zirala-ta, an agoztuaren 31'tik urrillaren 19'ra bitartean ospatu ziran jaien berri ematen digu, berezki.

**«Lizardi».** Jose Maria Agirre, gure zarauztar olerkari aundiaren zortzi olerki ta itz lauzko lanbo bat. Donosti'ko «Industria Gráfica Valverde»-k, oso apain, argitara emana; olerki bakoitzak bere erdal itzulpena dakar, eta marrazki dotoreak. Jean Haritschelhar'ek egin dio itzaurrea. 67 orrialde. Ederki datoz olako argitalpenak.

**A. O.**